

# Gure folklorea arrisgoan?

# FOLKLOREA TA KANTA BERRIAK

(II)

## Kanta berrien ondorenak

Maria Elena de Arizmendi-k idatzi zuan «La Voz de España»-n, otsailaren 3-an. *Nuestro folklore, en peligro* izenekoa artikulu bat. Irakurtzen ditugun artikulu askorekin, naiz eta konforme ez egon, maiz gertatzen zaigu ixillixi utzi bearria. Maria Elena de Arizmendi-renak ere ori egin nai nuen, begiratu orduko igarri niolako ezer gutxi zekiala etnolohari buruz. Bañia, egun gutxi dirala artu nuen sobre itxi batean, korreo, artikulu bera, egunkariarik ebakita. Gerotik, «Hoya de Lunes»-en ere irakurri nuen *Sobre el "folklore" Vasco* izenekoa lan bat «Un Donostiarra» izenpeturik. Auzi bera da. Bañia «Un Donostiarra» dakiko orrek bai badaki nundik dabilen. Badaki folklorea zer dan.

Arizmendi andereñoaren ez dakit norek hialdu didan, ez bai zuen igor-biderik. Ez dakit zergaitik hialtzen didan ere. Gaiñera, ni ez naiz «linbosa» bizi «La Voz de España» dakarrena ez jakitoko. Bere asmoa nik erantzutea ote? Ez dakit. Ez diot igartzen. Bear bada masiatzialleren bat. Demoniño tentatzialleren bat bada edo ez bada, berdin zait. Jakin beza nere iritzia.

Kanta-berriak erabiliñai ez di-tuan eskaldunak, eskubide guzikiak ditu ez erabiltzeko. Ez nago bere kontra; ez ta gutxiagorik ere. Nik kanta-zaarrak oso aisegiñezko bai ditut, Bañia, berriak erabiliñai ñai dituanari, arren, utzi pakean. Ta, onek nakar gau azken alde.

Arizmendi andereñoak, zientzia, filosofia eta arte berriak naistentia, filosofia eta arte berriak naistentia, filosofia eta arte berriak naistentia, filosofia eta arte berriak naistentia, filosofia eta arte berriak naistentia...

Europako erri guzikiak dituzte beren jatorrizko folklorea onduan gaurko zientziaren gizon jakintak; guzikiak dute beren folklorea; bañia, baita ere azken modako blue.

Ez dakit folkloreakin zer ikusirik ez duen gaurko berarekin nastatzerik. —Arizmendi-k egin duen azalpena... Folklore barnean ere muisa, dantza, kanta eta berei dagokien sioñu-joteko tresneri buruz bakarrik mintzatuko naiz. Otek diralako artikulu orretan darabilzkinak. Bizitza ere, etxe, dramakulu, eleazar eta gaitzarentzako folklorea mota guziki alde batera utzirik.

Cauza pilla asko daude bere artikuloan folkloreakin zer ikusirik ez dutenak. Ta, berretarik bat da modako kanta-berria. Denbora berriak bere giroak egindako gauzak dakarzik, bai Eskalderriari eta bai beste edozein erri. Orain modan jartzen diran asko baztertuko dira, bai; bañia beste asko geldituko dira, gero folklorea izateko. Gero ere, Maria Elena bezala, asko izango dira beren esnie, denborako berrien aurka izatearekin batera. Paradoja badirudi ere, lenago kondairan zear gertatu dan ber-bera berri gertatuko bai da.

Gaur, iparrigerri bizi izan balitz —Gernika-ko arholak, gure kanta nagusia gitararenkin kantatu zuzana — «ye-ye» ritmoan kantatuko zuan noski; bestela ez zan izango Iparrigerri. Ori egin bai zuen bere garaiñan, zortzikoak aldatuz, bertso-larien errotik artu eta orduango modora jarri. Xenpelarren beretsoko daude lekuko.

Beraz, zer da gure folklorea, noiz-hait guk besteangandik eta besteak guretik artutakoa izan ezik? Txistua, zenbateraino da gurea? Kusi igaz idatzi nuen *Txistulari eta "Flamiole" (ZERUKO ARGIA, 145-gn. zenbakia, abenduaren 5-ekoan, 1965).*

Panderoak Ura ere sartu zan noiz-hait gure errin. Beraz, zergaitik dago Maria Elena de Arizmendi panderoaren alde? Gaur gure espirituko bada, nere daki biar «jazz»-a bera ez ote zan izango?

«Oñes»-k zinuanez, danbologia, tium-tuna, Santander aldetik etorria zela. Ez det gauza ori azertu, bañia ez nintzake batera artirik. Arriarotik geiago, erriak, Barandiaran-ek dion bezala, alkarkeliko eman emetan bizi izan dira. Europeko sarkalea guzian batez ere. Etnografia ikasturo txiki bat aski da jakitzeko gure doñurik zaarrean eta gure dantzarik zaarreak, gure asak sortuak diren ala besterri arriak diren dudan jartzeko. Gure dantzarik zaarreak ihauteri eta soltziotetan (eguzki goi-beietan) dira. European ez-ezik, mundu zaba-

lean bezala. Ezpata dantzak, Zamal-zaiña, San Migel dantzak, Mutildantzak eta abar, Euskalerriñik kanpora ere egiten dira.

Beraz, zer da arima? Zer Maria Elena-k dion «original sustancia» dalako ori? Gure ariman, beste erriagandik bereizten dituan lautik batekoa ez aal da eskura? Ta, zer ajoja zaito kantu berriak gure mintzairara ekartzeko? Ez aal dio lagunduko eskurari gaurko gazteri modazaleen artean? Gazteen artean mintzaira indartzeko bide dala, eskurakerekin gure arimaren zati nagusiari iraunerazten bai diogu. Ta, orregaitik nik ez diot ezer txarrik ikusten gure arimantzako, ta bai onik. Orain zun urte, orain mila urte, orain bostmilla urteko eskaldunak ere orrela jokatuz zuten. Eta, kanpotik datorrenari atak iririkirik bakarrik arkituko du eskurak bere bizi-bidea. Ta eskurakerekin salbazioa bakarrik du Euskalderriaren salbazioa. Gaur ik zorian bada ere; bere itxate eskurari sustraitu du Euskalderriak.

«Ye-ye» ritmoa euskararentzat profanazioa dala? Euskerak ez al du erderak bezik eskubide modako gauzetan? Profanazioa zan XVIII-en, mendeko Claveria-arentzat erderak eskurara ta Euskalderriari buruz jartutzea. Ara zer zion

Burlatzen naiz Garibal-eh Bai halaber Frixabe-z Zeinak mintzatu baitire Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz gerotik Eskaldunak hek bai Eskaraz behar zituzten Egin bere historiako.

Eskaraz egin dituzte, Etxeberri, zure obrak Ohoratu nahiz zeure Ahalez herritarrak.

Beraz, gure arima egiakiz salbatu nai duenak, idatzi dedilla euskeraz. Bestela «ye-ye»-k baño kalte aundioa dakar gure arimarako. Bai, berak dion bezala: «Hay que luchar por la permanencia de sus valores puros». Egia bada, datorrela mintzairaren alorrera.

Franck Sinatra-k txapela ta blusarekin jantzi nai badu, or-konponi Berak jakingo du zer egiten duen. Ni neu, euskalduna izanarren (euskaldunik geienak bezala) ez det erabiltzen ez txapelak ez et blusarik, eta et abarkarik. Ta, ez nago oiek jantzen dituenen kontra, eta ez jantzen ez dituztenen alde. Bakoitzea berri onduen deritoxen bezala ihilli dedilla, inori kalterik egiten ez dion artean. Nik dakidana da, folklorea zaarra bakarrik nai duten oiek ez direla abarkaz ihiltzen, erbestetik sartutako zapatekin baizik.

Modarik geienak pasatzen dira. Bai. Bañia pasatu ala berriak artu bear ditugu. Poesiarik ez dutela oraingo kanta berriak? Gezura deritox. Erromantizimuz faltsurik ez dute, bañia poesia bai. Poesiarik ez baluke ez lirake elduko gazteen biotzetara, eltzen diran bezala.

Nik ez dakit Arizmendi andereñoa zer adieratzea dan, bañia ispirituz zaarra dana ez dago esan berririk. Bere esparura sartu nai dituzte gazte guzikiak, denborak baño leen zaartzeko. Bañia, gazteak gazte jarrai bedi. Galtzadun emakumeak, naiz luze edo naiz labur, ez dute pekaturik egiten. Pekatua, aietzaz gaizki pentsatzen dutenena da. Mendirako, ondartzarako, kalerako, kafetako... —uste dut — au nere iritzi bat besterik ez da eta ez nuke nai inori ortara beartu — ez dago emakumezkoentzat galiza luzeak edo galiza motzak bezalakorik.

Maria Elena de Arizmendi-gan arritzen nuan da, emakumea izanik, mutilik egiten dituzten dantzak eskubiderik ez ematen nekastalirik. Nik, gizona izanik, eskubide berdiñak eskatuko nintzuke gizakume eta emakume artean; bai bizi-tzetan deretoxan, bai jolasetan eta bai moralaren neurrietan.

Ez nator bat bere teoriekin. Bestela, iduritzen zaiz. Iezetara joan bearke dogue arriarotan bezala bizi-tzetan. Nik, egundakak lezak ikusi ditut eta etzazkik atsegiñezko bertan bizi-tzeko. Ta, bere teoria oietatik, euskaldun guzikiok, lezetan bizi bearke giñake, orain zortzi-bat-milla urteko euskaldunak bezala, naiz eta ura ere ez izan guri bakarrik zegokigun bizi-tza autoktonoa. Beste erriak ere ala bizi bai ziren.

«El modernismo, que es menos-

precio de lo antiguo...». Bai zuretzat noski. Bañia ez nerezat. Ez zaizu izango aski arkeolojia eta etnografia zalea naizela esatea. Nerretzat aintziñatikoa ezaguarria da, maiz geroa erakusten digula ere badakit. Bañia oraingoa bizi-garria gaur. Beraz, jakingarria ta bizigarria, biak arkitzen dituz bearezkoak. Ta nere zuntzeñan ez dijoa bata bestearen kontra Bai kate dute beren toki berezia. Batak ez du bestea mesprezantzen, eta ortara begiratuz. Ta, oiek esaten dituz Euskalderriko



Gure folklorea oso ederra ta... Ta zer gaur ye ye dantza ta kantua? (Foto Andoni)

dantzarik aipagarrienak bakoitzea beren iriki onduaren, ta, batez ere, gure kanta-zaarrak geienak irakurri ta asko buruz ikusi ondoren.

Maite ditut kanta-zaarrak, bañia betoz berriak ere, betoz geroago ta geiago Maria Lourdes Iriondo, Robles nela-arrebak, Lahereri ta Lalo miriku jaunak, Lekuona gaztea, Villar... bezalakoak. Betoz ordu onduen. Zuek lantzen dezate gure arima, ta ez erderakoz izjarloan gu jutzatzera dotozetenak.

Gure folklorea ez dago arrisgoan (galdu ditugun geienak mendiek beren bizi-legez baztertu dituanak dira). Gure arima degu arrisgoan. Gure arima!

Badituzte modako kanta-berriak auek euskaldun folklorea bakarrik jarritzen duala arrisgoan. Erderak idazten dutenak zergaitik ez ote dira arduratzen erdal folkloreakin? Gaiñera, gure errian ez indartsu ba degu, folklorea dala bat esango genuke. Obe genduke euskal folkloreakin aihoko indarra baluke euskerak. Geiegi dira gure erria maiztzen dutelako, beste gabe, folklorea utsiaren konformatzen diranak.

Bañia, modako kantu berriak euskeran, euskaldunori dagokigun gauza da. Ta ez deroraz ari diranerri.

JUAN SAN MARTIN

# Ye - ye ta folklore

Bidani'tar Ladislao

Donosti'ko kaleetan gizon bat erdi galdua zebilen. Buruan txapela txiki bat okera zeraman eta galiza urdinak eta gomazko onetakoak. Makutalik zirolako beso zaindua eta ihleñak erakusten zituan. Pauso bakoliztan metro bat errez aurreratsen zan. Esku bat patrikan sartu ta zeraman eta bestea hixak gañeko elastikuri eusten ziolarik.

Gora ta bera zebillela, bere aurreran, automobil batetik andereño do-tore bat irten zan. Airen tipua! Luzeta ta liraina, alajaña. Ilie beltzune arrotua. Buru belarri zeoro apaindu. Lepotik iru edo lau kollare zin-tzilik eta bates ere ua estalkia, ura! Gure gizonak ura ikusirik bere-kiko pentsatzen zuan: «Amesal erraldeko txekorrak baño geiago balloko dik abirio orrek! "Nunoga ote diagu? Ministro baten alaba edo? Ber-rari galdetu bear xiot hada. Ta azkenean onela galdetzen aín: "Oiga, ustek deizime a mi ñonde entrar Parte vieja de San Sebastián. Andere-ñoak becala igarri zion euskalduna zala eta onela erantzun zion: «Egun on Jainkoak aiezula. Donosti'ko Parte zarra bilatzeko aski ñezu zuzen kale ortatik aurrera segitzea. Ortik bertara aterako zera»

Gizon ura dans zoratuia geldu zan. Etxuen ueste alako andereñoak euskerak itzegin zekenekin. Eta erantzuteko "merci" besterik ezitazioan lrtzen bere espafetarik.

Euskalderriñan alako folklorea asko ikusten degu oraindik eta bear be-zelako ye ye gutxi.

Kantauri'ko olatuak gure itxaser-tzak belega jorzen dute Euskalderria gaurko kanta berriak. Ouen emengo sarreñan galevazi dezaken indarrik ezal Eresi ta ritmo berri oiek, be-ven zarata eta dezdarren bitartez, lu-di gutxioko gaztedia jabetu dira. Orrela ba, ez da arritzeko gure gaz-tediak ere maite izatia gaurko do-ñuok, eta beren arteko hillerak egit-tian beste aukerarik ez izatia. Be-arrezoak egin dira kanta berriak.

Egoera ortoz oarturik, eta berri-ko musika oiek euskeraz emateko alegiatan dabilzta batzuek. Ta ja-kiña, kanta berriak sortzia haño kanpotik dotozenni euskerazko itzak ipintzia askoz, ez errezago dalako, lan ortan fede onez diarduten eus-kaldunak ba dira. Bañia, nere iritzi-ko, ni egokier ditut lan orrek. Az-tertu ditzagun.

Alde batetik, atzeririk etortitako kanta berriak, lendabizi berezi, gero itzak jarri, eta urren, gure erriari atsegin zaiñkiola ikusi ondoren, be-re diskoa egin nai deguaroko abesi-ti orrek alde egin du bur onetik eta here ordez beste herri batzuek ia-betu dira gazteen biotzetan. Bestela, orailu: emen «Gazteko Naiz» abesten ari giñaneko, aspaldi obi-ratua zegoen goñerako arraldeetan.

Bigarren egokiera, berrik, atzeri-rik etortitako erasi berriak euskal hortasunari kalte aundia egiten dio-lako az; berrikeri oiek, alde guztie-tako giroetaz nagusituta, alako ber-dintasun belaska bat sortzen bai du-te, bide batez, erri bakoitzeko nor-tasunak usatiaz.

Orregaitik, gaurko ritmoak be-arrezoak egin diran ezkerok, azkoz ere ohe izango litzake, ritmo oye-tuan, euskaldunak berak sortzia me-lodi berriak. Onelako kantak ez li-rake an aguro zartuko, ta gañera, alako eskual kutsu bat ere izango bai luteke.

Eta nork egingo lituke melodi ber-ri oiek? Jakina, gazteak beraldez erantzun digute: «Euskal erresi-lleek eginkizuna da ori!» Bañia, nik, ordea, uste det gazteak berak sortu bear lituztekelo gaurko kanta ber-riak. Nik esan detan ori burugabe-keria irudituko zaue geuenai, haño ez da ala, bada Ameriketan —egol-dean bezala, iparraldean ere— as-koñan ikusi izan ditut angazteak gelatibo batean sartu, edo ganbaran —joto batean espada— elkar bildu eta, geuenatan musikaren tutik ere jakin gabe, gitarari "dingli, dangla" eraginaz, orduak eta orduak melodi berri bateri atosk atara nayeñ. Orretara zenbat kanta berri sortu izan diran jainkoak dakil Gure gaz-teak orrela sayatuko ba-lirake zer

edo zer lortuko lutekolan nago.

Orain, ritmo berrien giroa dala-ta, oarkizun berezi-berezi bat egin nai det fede onez ortan buru-belarri sarturik dabilzatan euskaldun jato-riku. Ritmo berriak, ura beti, giza-tzeñ berko malletan galditzen zan zerbat diru inoiz ez dira eltzen erri bat aberastera, bai ordea, errian go-ñak ta zaletasunak makurtzera. Orre-gaitik, giro orretan murgildurik da-biltzanek entzun bezate (balduñ eta egunen batean —naiz eresan edo olerki gayetan— euskal edertiarren goi malletan jarduteko asmorik ba-dute, beintzat), entzun bezate zi-ñetan estaten dietena: beren denbo-ra ederra alperrik gaitzen ari dirala, Beko malletan artizeak sakrifizio aundia dakor berarekin, au da, goi ornasarik gabe ta egoak morturik galditzen dala bat. Beko malleko lan-ak askotan dirua ta erriosep edo poplaridade erraza eskaintzen di-kiñu, haña irudimeneren egoak liru-linkutatu geratzen zaizkiñu. Eta azultzen ari naizen ritmo berrien kalte ori egiztatzeko gertara bat esango det.

Ameriketako iri batean zan. Goi mallako eresgille izateko gotogik ikasten ari zan gazte talde bat. Gas-te abetako batek, diru berrean zen-gezoen-ta, irrañi batego erri-orkesta-ren zuzendaritza artu zuen, eta or-kesta orreko ritmo berriko eresiak besterik ez zituen zintzen. Lan ortan ueste batzuek zeramatxin, eta, egun batean, ikasteka danak amaitu on-doren, berak idatzitako Lemenjo Sinfonia uriko antzoki nagusian Filamoniaka Orkestak joa izan zan. Bañia, zer gertatu zan? Bada bere ereslan guztian alako beko mallako kutsu merke bat nabari zala, eta batez ere, aren «Allegro» pasado-ble batean antza besterik ez zuela. Entzuleekin batera, eresgille gazte ura oartu zan irratiko orkestak, ur-tzen zear, egin zion kolortatz eta, amur emanaz, goi mallako eresia utzi ta irratiko giroari bakarrik el-du zion aurrerantzen.

Gertera orrekin ez det adierazi, nai, alegia, iñork ez inelka jardun bear ritmo berrietan. Ez! Bakoztat, jakituan gañean, aukeratu dezala be-re bidea: beko malla edo goikoa. Eta iñork ez ditzala nastu biak, ez eta litzatu bata edo bestea aukeratu bear litzakeala esanza.

Beste zerbat ere aiatu nei dei gai oneri buruz. Batzuek uste du-tenez, giro berriko abestiak euske-raz jarri ezkerko, gure gaztedia er-razgo zaletuko dala euskerataz. Ni ez naiz iritzi ortakoa. Gazte batek lendik eskual txurrian mañkoa edo espada, zail, oso zail izango da bere euskaltzalekten kantu arin eta uti oien bitartez, eta zorameneko dial errieg itzes egiten diocanean, neke biurtuko da euskal iturri garbitzer, lengo ezereztara errezago izutuko baita, xur aski. Orregaitik, ritmo be-rrien alde lan egitia euskeraz jaso ta zabaltzeko itzaropena dala uestetan egotia amets gaxo bat eukizita dala deritzait. Eta gañera, abesti berri oiek lantzen ez genduke geuegi sa-yatu bear, (isterismoarekin, alegia) kanta oiek berez bai dakarte beren indar aundia, eta berez barretuko bai dira emengo gazteen billeratan ere.

Idazlan au bukatu haño len, gure folklorea aiatu nai det herriro. Eri-si gayetan, batez ere, beste edozein erriera beñin ona edo obee da. Gitz-tiz aberasta ta ugaria. Folklore be-rezi au tiera dezagoeñ erri osoti eta, herezik, imetvo ta gertak. Eunka ikasi ditzatela gure abest yoriak, ori baita bertasun egoki ba-ten jabe izateko biderik onena. Ola-tu berriak, Kantauri'ko itasooñ be-zala, gelditu ere gabe, gañez etori-ko zaiñkiñu beti, haña gure nor-tasuna folklorea-ntzen habetuba bil-din ba-dago, Euskalderria'k jator tuz nez trauen du beti. Eta ez dezagu inoiz aztu, —naiz gizon eta erri-tan ere— nortasuna dala geuen bi-hio duen ezaugarria.

ONATIBIA'TAR YON